

BIDE ERDIAN (Rueda)

**BIDE ERDIAN BILUZIK NAGO,
ORTOZIK NABIL ASFALTUAREN GAINETIK.
ATSEGINA EGITEN ZAIT
LURRA SENTITZEAREN SENTSAZIO HORI.**

**AUTOAK ALBOTIK DOAZ,
BEGIRATZEN DIDATE EUREN ZUZENTASUNETIK,
HARRITU EGITEN DIRA
BARRE EGIN ETA ESKUA ALTXATZEN DUDANEAN.**

**AUTOESTOPA EGITEN DIET ALBOKO ZUHAITZEI,
KATAGORRI BATAN BATERI ERE.
ESATEN DIDATE GUSTURA HARTUKO NINDUTELA
EURENEAN LEKUA IZANEZ GERO.**

**EZBERDINTASUN HANDIA
KAFFEA ETA ESNEAREN ARTEKOA,
AGIAN HORI IZANGO DA
KAFESNEA HAIN GUSTUKOA IZATEAREN ARRAZOIA.**

FOTO ZAHARRAK (I. Astiz/Rueda)

Foto zaharrak begiratzen;
guztiok gaude, denok gazte.
Jada ahaztu dugun zerbait
hor ari gara ospatzen.

Iñakiren etxean da
ikurrinak-ta gay banderak;
maiteen genuena
oihalez apaintzen. Estaltzen.

Dena irabazi nahian
denen alde,
ta orain
hemen jarraitzen dugu
apur bat galduta
denen pare.

Foto zaharrak begiratzen
gure orduko zoriona,
zure heriotzak oraindik
orbaindu gaberik
hor gaude.

HOKUSAIREN OLATUA (J. Sarrionandia/Rueda)

Marea izugarri jaitsi da, Hokusairen olatua
datorrelako.
Itsasbelarrak, txalupak, kostalde osoa dago
Hokusairen olatuaren zain.

Nork ez daki badatorrela eta ihes egin behar dela?
Albora begira gabilitza,
hala bizi gara aspaldian, olatupean bezala,
Hokusairen olatuaren zain.

Ez dakigu urrun ala ja hurbil datorren, ur gardena
ala ur zikina den,
baina denak higitzen gara hodeiertzari begira
Hokusairen olatuaren zain.

Aire apur bat, uhin bultzada txiki bat, kaio hegalak
gaina ukitzea
nahikoa izango da olatua lehertzeko. Artega gaude
Hokusairen olatuaren zain.

Hondatuko dira batelak, portu osteko harresiak
eta etxera bideak,
eta ibarretik gora sartuko da ura. Gu non?
Hokusairen olatuaren zain.

Leihoetatik sartuko zaigu uholdea, ontziak
teilatuetan ainguratu
eta itsas izarrak iltzatuko dira zeruan. Gaude
Hokusairen olatuaren zain.

Suntsidura ekiditeko ezin izango dugu ezer egin.
Itsasoan eta lehorrean
ereingo dira gorpuak, eta ez dira berriz haziko
Hokusairen olatuaren zain.

Gogotik apartatuko dugu Hokusairen olatua,
baina bera
ez zaigu gaineratik kenduko. Hortxe egongo gara,
Hokusairen olatuaren zain.

Ihes egin behar genuke itsas bazter honetatik,
baina ja berandu da.

Gainean izan dugu beti, azpian bertakotu gara,
Hokusairen olatuaren zain.

Ez dugu esango beldurrik ez diogunik, baina
gerizpea ematen digu.
Kemena, sosegua eta zentzua zor diogula gaude
Hokusairen olatuaren zain.

IHES PUNTUA (E. Olave/Rueda)

Basoan bilduta baleude
urki ta asun artean

ihardetsi nahiko nituzkeen
galdera guziak.

Gauaren epelean,
emozioen kapa mehean

gorpuztasunn aldakorra naiz,
orkatz eri bat

Eta kristal hautsiak agertzen dira
eguna hiltzean.

Sendatu, sentitu aldera
ematu bitartean
trapu ta ukendu artean

agertzen diral kristal hautsiak
zeru oskarbitan,
narrazio biluzitan.

Kristal zatiak, mendaz estaliak,
ninfa baten berba
usaintsuak bailiran

haran-brisan libre.

LEUN BAZATOS (A.Lorde/Rueda)

Leun bazatoz
haizea nola zuhaitzetan barrena
adi dezakezu nik aditzen dudana
ikusi haizeak ikusten duena.

Arin bazatoz
ihintz-hariak bezain laster
pozarren hartuko zaitut
eta zugandik ez dut eskatuko ezer.

Nire ondoan eseriko zara
arnasa bezain isilik;
ez dute oroitzen heriotza
hilda darraitenek baizik.

Eta baldin bazatoz, ez dut hitz egingo
ezta ere hitz gogorrik esan.
Ez dizut galdetuko zergatik orain,
edo nola, edo zertan zabiltzan.

Hementxe eseriko gara, leun
bi urte ezberdinen gatibu
eta gu bion arteko lurrrak
malkoak edango dizkigu.

NEGUKO LANGILEAK (J. Goikoetxea/Rueda)

Martxo da jada.
Neguko langileok ezin sinetsita gaude.
Esku ahurrei begirtzen diegu
fabriketan, bulegoetan, sukaldeetan...

Martxo da, beraz.
Neguko beharginok erantzi egin ditugu
buzoak, betaurrekoak, mantalak,
kaskoak, katiuskak, gonak
eta etena egin dugu
mimosak
horitzen diren bitartean.

ZAHARTZEKO MODURIK ONENA (M. L. Esteban/Rueda)

Zahartzeko modurik onena
hirian bizitzea da
kutsadurak izarrak estali arren.

Zahartzeko modurik onena
gazte nahi ez izatea da.

Zahartzeko modurik onena
norbere aurkikuntzan tematzen da.

Zahartzeko modurik onena
kotxearen azken kolpea,
etxeko hormetako
zartatua, azalaren
mailatua, bizitzaren
zimurrak
bere horretan zaindu eta
behatoki bihurtzea da.

ZERUA BAKARRIK DA (I. Müller/Rueda)

**ZERUA BAKARRIK DA BERDINA BENETAN
HOZTUTA EGITEN DUT HODEIEN ZENBAKETA
ASUNAK UZTEN DITUT ETXERA BUELTAN
HILOBI ARROTZ BATEN GAINEAN BARREKA**